

LUPAREKIN
Paula Kasares

IRAKASLEA

DisneYruñea

N

afarroako Kutxan, zeuk aukeratzen duzu komunikatzeko hizkuntza”. Hala xe dio gaztelaniaz, euskaraz eta katalanez Nafarroako Kutxaren hiruorrikoak, bezero guztiei erakundearekin harremanak (idatzizkoak, telefono bidezkoak nola telematikokoak) hizkuntza horietako batean edo bitan (euskaraz/gaztelaniaz) egiteko aukera ematen dienak.

Begiratu batean, batek pentsa lezake erakunde pribatu batek bezeroekiko bere harreman politika nahi bezala egiten ahal duela, baina bi aldiz pentsatuta, atentzioa ematen du Nafarroako Gobernuko lehendakari jauna bera buru duen erakunde batek halakorik egiteak. Hau da, Nafarroa hiru hizkuntza eremutan zatitu eta nafarrei euskararekiko eskubide ezberdinak aitortzen dizkien legearen gaitetik, harremanak euskaraz izateko aukera bezero guztiei ematen die (katalana ere hautagai izateko kontu horretan ez naiz gaurkoan sartuko).

Eta galdegitea bada, hizkuntza mugak hain *naturalak*, hain beharrezkoak, hain mugiezinak badira, nolatan Sanz bera buru duen Nafarroako Kutxak haien gaitetik egiten die bezeroei bere zerbitzu eskaintza? Bezeroak direlako, hain zuzen ere. Bezeroekiko diru-harremanetarako ez dago hizkuntza eskrupulurik, herritarrei zerbitzuak emateko berriz, mugak mugiezinak dira.

Orain burura datorkit joan den irailaren 26an Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUPe)ko ikasturtearen hasiera-ekitaldian Nafarroako Lehendakari jaunak errandakoa: NUP Tuterara eraman izanak nafar guztiek, nonahi bizi direla ere, eskubide berberak izatea ekarri zuela. Zur eta lur begiratu genion elkarri han geunden batzuo, anitzetan erabili izan dugun argudioa Sanzen ahoan entzunda.

Legealdi honetan, orain bitartean erakustoki hutsa –zinismo ariketa ez



MIKEL SAIZ

errateagatik– izan da euskararen gaineko diskurtsoa: itxura emateko diseinuzko hitzak, bikainak eta panpoxak. Azalutsak.

Nola ulertu bertzenaz, Carlos Pérez-Nievas Hezkuntza kontseilariak kargua hartu eta berehalaxe Euskararen Nafar Institutua (ENAI) sortuko zutela sona handiz iragarri eta handik hilabete luzera oraindik martxan ez izatea? Nola ulertu Foru Administrazio-ko organigrama osoa beteta, ENAI zuzenduko duenik ez harrapatzea eta hizkuntza politika geldiarazita egotea? Izanen da

denok usaintzen dugula UPN-CDNk gaztelu berria (ENAI) baino ez dutela egin mamu bera (Euskara) gordetzeko.

ENAIri lotutako funtzio eta eginbeharrak ikusita, batek pentsa lezake erakunde berria Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikari eman nahi zion bertzelako norabide eta bulkadaren seinale zela, baina segituan kontseilari jaunak iraultzarik ez zela izanen iragarri zuen: ez zuela Euskararen Foru Legea aldatzeko inolako asmorik; ez zuela D eredia Iruñeritik beheiti eramateko urratsik ttipiena ere emanen; Iruñerrian baina *eremu ez euskaldun*ean dauden udalerririk legez *eremu mistoa* bihurtzeko ikerketa gehiago eginaraziko dituela (antza, hango biztanleen euskararekiko atxikimendu zabala agertu zuen ikerketa, Nafarroako Gobernuak berak 2006an eskatuta, ez dago ongi eginda); *British* ereduaren aldeko apustu garbia, D eredia gaimentsionatuta dagoela eta hiltzekotan, arrakastaz horditurik hilen dela (poetikoa, ez da hala?); kontseilari jauna benetan kezkatzen duena *eremu mistoan* A ereduak duen eskaera eskasa dela.

Hori horrela, Euskararen Nafar Institutua izanen dugu, baina Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika lehenengo lepotik buru okerra. Efektuzko proiektu baten erakustaldi hutsala. Batzuetan, ez dakit ez ote naizen DisneYruñean bizi. ■

«
Euskararen Nafar Institutua izanen dugu, baina Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika lehenengo lepotik buru okerra. Efektuzko proiektu baten erakustaldi hutsala. Batzuetan, ez dakit ez ote naizen DisneYruñean bizi
»

